

**Bilbao** Donostia-San Sebastián Vitoria-Gasteiz Pamplona-Iruña — Aprilak **16** abril — 20:00 h. — Concierto nº 2469



EUSKADIKO  
ORKESTRA

**2010-2011**

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa  
Orquesta Sinfónica de Euskadi



## Gaurko kontzertua

### El concierto de hoy

**ERRITMO-INVENTARIOA.** 1878az gerotzik, Simrock-ek Dvoráken *Danza Eslaviarren* lehen bilduma argitaratu zuen urteaz gerotzik ale-gia, 1934ra arte, hots, Glazunov errusiarrar, harrezkero Frantxian bizi zela, *Saxofoirako kontzertu* bizia konposatu zuen arte, kontzertu honen askotariko estilo eta jatorrietako formula erritmikoak biltzen ditu. Bertan, furiant-a, mazurka, kolo-a, susesdska, dumka eta odmezek-a topatuko ditugu besteak beste; baita Ravelek, dantza makabro eta zoroan deformatutako Vienako bals sentsualak eta Schulhoff-ek saxo-rako *Hot Sonate* obran txertatutako jazz-aztarnak ere.

**INVENTARIO DE RITMOS.** Desde 1878, año en que Simrock publica la primera colección de *Danzas Eslavas* de Dvorák, hasta 1934, cuando el ruso Glazunov, establecido ya en Francia, compone su expresivo *Concierto para saxofón*, el presente concierto representa un compendio de fórmulas rítmicas de los más diversos estilos y procedencias: del furiant a la mazurka, del kolo a la susesdska, de la dumka al odmezek; sin olvidar el sensual vals vienes deformado por Ravel en alucinada danza macabra o las reminiscencias jazzísticas introducidas por Schulhoff en su *Hot Sonate*, igualmente para saxo.



Hemen jarrai ahal izango  
diguzu / Síguenos en:

[facebook](#) [flickr](#) [YouTube](#)

Y suscríbete al Euskor digital en

[www.euskadikoorkestra.es](http://www.euskadikoorkestra.es)

webgunean izena eman  
Euskor digitalean

Testuak / Textos:  
Juan Manuel Viana

## Egitaraua / Programa

**Antonin Dvorák (1841-1904)**

Opus 46, nº1 en do mayor. Presto [4']  
Opus 46, nº2 en mi menor. Allegretto grazioso [6']  
Opus 46, nº3 en la bemol mayor. Poco allegro [4']  
Opus 72, nº7 en do mayor. Allegro vivace [3']

**Alexander Glazunov (1865-1936)**

Concierto para saxofón alto y orquesta de cuerda en mi bemol mayor, opus 109 [15']\*

2

**Erwin Schulhoff (1894-1942)**

Jazz Concerto, Hot Sonate para saxofón alto y conjunto de cámara [15']\*  
(Richard Rodney Bennet-en orkestrazioa / Orquestación de Richard Rodney Bennet)

**Maurice Ravel (1875-1937)**

La Valse [12']

\*Lehen aldiz interpretaturiko obra / Obra interpretada por primera vez

David Ballesteros  
kontzertinoa / concertino

Andrey Boreyko  
zuzendaria / director

Branford Marsalis  
saxofoia / saxofón

Euskadiko Orkestra  
Orquesta de Euskadi

Laguntzaile  
Colabora:

**EL CORREO**

Babeslea  
Patrocina:

**bbk**

# Egitarauari Oharrak

## Notas al Programa

### Cuatro Danzas Eslavas


**Antonín Dvorák** - Nelahozeves, 8 de septiembre de 1841 – Praga, 1 de mayo de 1904

Brahmsen aholkuz, Frintz Simrockek, batere ordainsaririk gabe, Antonín Dvorák ia ezezagunaren *Duo moraviarrak* argitaratu zituen. Emaitzarekin pozik eta, 1878ko martxoan, Berlingo argitaratzaleak txeikiar musikariari idatzi zion Brahmsen *Dantza hungariarraken* estiloan lau eskuko pianorako bohemiar eta moraviar dantzten koaderno-pare bat ondu zitzan, 1869an dirutza ederra eskuratu baitzuen. Dvorákek mandatua onartu eta, maiatzaren 7an, bere Opus 46 osatzen duten zortzi dantzak burutu zituen. Berehala, Simrockek orkestratzea proposatu zion eta musikariak, ohi bezain laster, abuztuaren 22an amaitu zuen zeregin hori.

Brahmsek ez bezala, hungariar dantza herrikoia (edo berak hala jotakoak) erabili baitzituen, Dvorákek bere folklore estilizatua “asmatu” zuen zuzeneko aipurik egin gabe, bereurreko jatorrizko erritmoetan oinarritutako eslavier jiteko doinu-kutsuak eta -lerroak baliatuz; adibidez, 1. *Dantza (Presto) furiant* oparo bat da, sinkopa kementsuz adierazia. 3. *Dantza (Poco allegro) polka* goxo bat da, azkenean skočná jauzilarri bat duela. Lehen seriearen arrakasta itzelaren ondoren, Simrockek dantza gehiago egin zitzan eskuatu zion Dvoráki, jada 1880ko otsailaren 14ko lehendabiziko gutun batean. Mandatuz, proiektuz, bidaiez eta kontzertu-birez gainezk zela eta “birritan gauza bera egitea biziki zaila” dela aitortuz, musikariak proposamena atzeratu zuen. 1886ko udan, ekainaren 9tik uztailaren 9ra, Dvorákek mandatuarri heldu zion azkenean eta, hurrengo urteko azaro erditik urtarriaren 5era, zortzi dantzako multzo berria (bere Opus 72) orkestratu zuen. Aurre-

Por recomendación de Brahms, Fritz Simrock publicó, sin remuneración alguna, los *Dúos moravos* del casi desconocido Antonín Dvorák. Satisfecho con el resultado, en marzo de 1878 el editor berlines escribió al músico checo para sugerirle la composición de un par de cuadernos de danzas bohemias y moravas para piano a cuatro manos al estilo de las *Danzas húngaras* de Brahms que tanto dinero le habían reportado en 1869. Dvorák acepta el encargo y el 7 de mayo concluye las ocho danzas que integran su Opus 46. Inmediatamente Simrock le propone orquestarlas y el músico, con su habitual celeridad, concluye la labor el 22 de agosto.

Al contrario que Brahms, que había utilizado auténticas danzas populares húngaras (o que él tomaba por tales), Dvorák “inventa” su propio folclore estilizado sin recurrir a citas directas, con ecos y líneas melódicas de carácter eslavo basadas en ritmos originales de su tierra. Así, la *Danza nº 1 (Presto)* es un exuberante *furiante*, marcado por energéticas sincopas. La *Danza nº 3 (Poco allegro)*, una deliciosa *polka* con el añadido último de la saltarina *skočná*. Tras el formidable éxito de la primera serie, Simrock solicita a Dvorák –ya en una primera carta fechada el 14 de febrero de 1880– la composición de nuevas danzas. Sobrecargado por incontables encargos, proyectos, viajes y giras de conciertos y reconociendo que “es endiabladamente difícil hacer dos veces lo mismo”, el músico aplaza la propuesta. Sólo durante el verano de 1886, entre el 9 de junio y el 9 de julio, Dvorák acomete finalmente el encargo orquestando el nuevo grupo de ocho danzas (su Opus 72) entre mediados de noviembre y el 5 de enero del



ko koadernoaren aldean, erritmoen jatorria zabalagoa zen orain (poloniarak, eslaviarrak eta serbiarrak, txeikiarrak ez ezik), orkestrazioa distiratsuagoa zen, baina elegia, lehenmin eta meditazio-aldartea dario gehiago, ez da hain suharra. 2. *Dantza bikaina (Allegretto grazioso)* eutsi ezineko malenkonía bide darian *dumka* bat da; aldiz, 7. *Dantza (Allegro vivace)* tonu pozgarriko *kolo* oso distiratsua da. Argitaratu zirenetik, *Dantza eslavierrek* harrera bikaina izan zuten, eta mundu erdiko kontzertu-aretoetan barrena eraman zituzten. Horien aldeko atxikimendua, Dvoráken (baita Simrocken) zorionerako, gero ere ezerk ez zuen gezurtatu.

año siguiente. En relación al cuaderno anterior, la procedencia de los ritmos (polacos, ucranianos, eslovacos y serbios además de checos) es ahora más amplia, la orquestación aún más brillante y sutil pero el tono resulta más elegíaco, nostálgico y meditativo, menos explosivo. La sublime *Danza nº 2 (Allegretto grazioso)* es una *dumka* que parece exhalar una irresistible melancolía mientras la trepidante *Danza nº 7 (Allegro vivace)* es un brillantísimo *kolo* de tono jubiloso. Desde su misma publicación, las *Danzas eslavas* fueron acogidas con entusiasmo, recorriendo las salas de conciertos de medio mundo. Su inmensa popularidad, para felicidad de Dvorák (y también de Simrock), nunca sería desmentida.

## Concierto para saxofón alto y orquesta de cuerda en mi bemol mayor, opus 109

Alexander Glazunov - San Petersburgo, 10 de agosto de 1865 - París, 21 de marzo de 1936

Glazunoven ekoizpenaren baliotsuena bere orkestrako ondare oparoan biltzen da, tartean dituela zortzi sinfonía, poema sinfónicoak (*Stenka Razin, Basoa*), fantasias (*Itsasoa, Iluntasunetik argira*), oberturas (*lhauteria, Patuaren kantua*) eta kontzertuko obren eskutada bat. Casals dedikatutako *Biolontxelorako Concierto Ballatik* hiru urte ondoren, *Saxofoirako kontzertuak* ematen dio akabera bere katalogoko atal nabarmen honi. Azken sorkuntza- etapan, errusiar musikariak nabarmen du 1928an Sobiet Batasunetik alde egin izana. Schubert lehiaketako epaimahaiak Vienara gonbidatuta, Glazunovek emigratzeko ego-kiera hartu zuen, eta Parisen finkatu zen 1932tik hil arte. Osasuna hondatuta zuela, baina Mendebaldean omen handikoa zela, Glazunovek kontzertu-biretatik ateratzen zuen bizimodu eta soilik tarteka komposatu zuen. Errepublikako Guardiaren Laukoteari eskainitako *Saxofoietarako kuartetoak* ezohiko tinbreei

Lo más valioso de la producción de Glazunov se encierra en su abundante legado orquestal que incluye ocho sinfonías, poemas sinfónicos (*Stenka Razin, El bosque*), fantasías (*El mar, De la oscuridad a la luz*), oberturas (*Carnaval, El canto del destino*) y un puñado de obras concertantes. El Concierto para saxofón cierra, tres años después del Concierto Ballata para violonchelo dedicado a Casals, este significativo apartado de su catálogo. La última etapa creadora del músico ruso está marcada por su marcha de la Unión Soviética en 1928. Invitado a Viena por el jurado del concurso Schubert, Glazunov aprovechó la ocasión para emigrar, estableciéndose en París desde 1932 hasta su muerte. Con la salud deteriorada pero suficientemente reconocido en Occidente, Glazunov vive con suficiente holgura de sus giras de conciertos componiendo sólo episódicamente. Un Cuarteto para saxofones dedicado al Cuarteto de la Guardia Republicana señala en junio de

buruzko bere interesa uzten du agerian 1932ko ekainean. 1934ko martxotik ekainera, azken kontzertua konposatu zuen alemaniar jatorriko Sigurd Rascher saxofoi-joleak eskatuta. Rascher Kopenhage eta Malmöko irakaslea zen eta Ibert, Hindemith, Martin eta Hába idatzitako lan askoren hartzalea.

Jazzaren batere kutsurik gabeko adierazkorrasun errromantiko berantiar bati eutsiz, Glazunoven kontzertua antzeko luzeradun hiru atal kateatutan banatzen da. Hasierako *Allegroan*, bakarlariak hariek aurkeztutako meditazio-gai barnerakoi bati heltzen dio bigarren motibo asaldatuago bat aurkeztu arte. Saxoaren diseinu arinak dauzkan sekuentzia oso bizi baten ondoren, gai nagusia berriz agertzen da. Harien zurrumurruak babestuta, bakarlariak motibo goxo-goxo bat aurkezten du *Andante* nagusiaren hasieran; segidan, berriz, kiribiltsu eta hertsagarri bihurtzen da. Amaierako *Allegro* birtuosoaren sarrera presatzen duen kodari kadentzia batek irekitzen dio bidea (urreko mugimenduetako gaiak ekartzen dituen *Fugato* dantzari bat). 1934ko azaroaren 25ean, Rascher-ek lana estreinatu zuen Nyköpingen (Suedia). Errepublikako Guardiako bakarlarri Marcel Mulek Parisen aurkeztu nahi izan zuen, baina Glazunov ez zen entzutera helduko.

1932 su interés por los timbres infrecuentes. Entre marzo y junio de 1934 compone su último concierto a instancias del saxofonista de origen alemán Sigurd Rascher, profesor en Copenhague y Malmö y dedicatario de obras escritas por Ibert, Hindemith, Martin y Hába.

Anclado en una expresividad tardorromántica ajena al menor atisbo de contaminación jazzística, el concierto de Glazunov se divide en tres secciones encadenadas de extensión análoga. En el *Allegro* inicial, el solista retoma el tema de carácter meditativo y recogido presentado por las cuerdas hasta exponer un segundo motivo, más agitado. Tras una secuencia muy viva, con ágiles diseños del saxo, el tema principal reaparece. Arropado por el murmullo de las cuerdas, el solista presenta un motivo de extrema dulzura al inicio del *Andante* central que gradualmente se torna más sinuoso y opresivo. Una cadencia precede a la coda que prepara la irrupción del virtuosístico *Allegro* conclusivo, un *Fugato* de carácter danzante que incorpora temas de los movimientos precedentes. El 25 de noviembre de 1934, Rascher estrenaba la obra en Nyköping (Suecia). Marcel Mule, solista de la Guardia Republicana, expresó su deseo de presentarla en París pero Glazunov ya no llegaría a escucharla.

## 2.

### Jazz Concerto, *Hot Sonate* para saxofón alto y conjunto de cámara

**Erwin Schulhoff** - Praga, 8 de junio de 1894 - Campo de Concentración de Wülbzburg, 18 de agosto de 1942

Pragan jatorri alemaneko familia judu batean jaioa, Erwin (edo Ervíñ, txequierazko grafaren arabera) Schulhoff haur prodijioa izan zen, Dvorákek berak adierazi bezala, eta Leipzigen hezi zen Reger-ekin batera; Debussyri ere hurbildu zitzaison, aztarna sakona utzi baitzion bere musikak. Gerra-gatazka amaituta, Weimarreko Alemania arte-joera berrien sukalde bihurtu zen, eta arreta erakarri zion. Schulhoff Munich eta Dresdengo talde dadaistekin jarri zen harremanetan, eta Werks-

Nacido en Praga en el seno de una familia judía de origen alemán, Erwin (o Ervíñ, según la grafía checa) Schulhoff fue un niño prodigo saludado como tal por Dvorák, que se forma en Leipzig con Reger e incluso se aproxima a Debussy, cuya música le dejará profunda huella. Acabado el conflicto bélico, la Alemania de Weimar, hervidero de las nuevas tendencias artísticas, reclama su atención. Schulhoff entra en contacto con los grupos dadaístas de Múnich y Dresde, donde funda la sociedad

tatt der Zeit kontzertu-elkartea sortu zuen. Bertan, Scriabin, Schönberg, Bartók, Berg, Webern eta Hindemithen lanak eman zituen ezagutzena. 1923ko udazkenean, Berlinera joan zen eta, abangoardia-posizioetatik, arte-balio kontserbatzaileen sistema eraisten lagundu zuen.

Dantza herrikoien erritmoen miresle sutsu (*shimmy*, fox-trot, ragtime, blues, tango), Schulhoffek bere musika-kritika garratzen bidez nabarmendu zen Salzburgo eta Donaueschingen estreinaldiak egiten zituen bitartean. Konformaezina eta, aldi berean, jazzaren, Vienako Bigarren Eskolaren, bohemiar folklorearen eta Seiak talde frantsesaren eraginpean, Schulhoff Europako kulturako animatzaile eskuzabalenetako bat bihurtu zen 1920ko hamarkadan. Aldi horretan, Berlin, Dresden, Leipzig, Praga eta Brno eman zuen denbora. Nazismoaren goraldiarekin batera, komunismoari atxiki zitzaiton. 1941eko ekainean, sobietarren Errusiara emigratzen saiatu baino zertxobait lehenago, Würzburgeko kontzentrazio-esparruan sartu zuten (Bayernen) eta, bertan, tuberkulosiak jota hil zen.

Genero guztietara irekitako katalogo zabal baten egile, Schulhoffek Saxo alto eta piano norako *Hot Sonateaz* burutu zuen haize-instrumentuetarako bi pasarte nabarmen jada biltzen zituen bi ganberako ekoizpen bat: txirula (piccolo), biola eta kontrabaxurako *Concertino* bat (1925) eta oboe, klarinete eta fagoterako *Dibertimendua* (1927). Lau atal laburretan zatikatuta, *Hot Sonatek*, izenetik beretik, jazzari buruzko erlazioa ematen du aditzera. Schulhoffek, bera pianoan zela, eta Billy Bartonek (Londreseko Savoy Orpheans Band taldekoa) Berlingo Funkstunde AG irratian estreinatu zuten lana 1930ean. New Yorken finkatutako Richard Rodney Bennett musikagile ingelesa da orkestrazio honen egile. 2002-2004ko dataz, pianoa haize-instrumentuek (txirulek, oboeek, klarineteek, fagotek, tronpek, tronpetek, tronboiek eta tubak), perkusioak eta kontrabaxuak osatutako instrumentu-multzoak ordezkatu zuen. Soinu azidoek, bereziki mugimendu bikoitietan, pieza Weill eta Gershwinen pasarte garaikideen senidea dela utzen dute agerian

de conciertos *Werkstatt der Zeit* en la que da a conocer las obras de Scriabin, Schönberg, Bartók, Berg, Webern y Hindemith. En el otoño de 1923 marcha a Berlín, colaborando desde posiciones de vanguardia en la demolición de los sistemas de valores artísticos más conservadores.

Admirador ferviente de los ritmos de danza populares (*shimmy*, fox-trot, ragtime, blues, tango), Schulhoff alcanza notoriedad por el tono mordaz de sus críticas musicales al tiempo que estrena con éxito en Salzburgo y Donaueschingen. Inconformista e influenciado a la vez por el jazz, la Segunda Escuela de Viena, el folclore bohemio y el grupo francés de Los Seis, Schulhoff se convierte a lo largo de la década de 1920 –en la que reparte su tiempo entre Berlín, Dresden, Leipzig, Praga y Brno– en uno de los animadores más desinteresados de la cultura europea. El ascenso del nazismo coincide con su adhesión al comunismo. En junio de 1941, poco antes de pretender emigrar a la Rusia soviética, es internado en el campo de concentración de Würzburg (Baviera), donde muere de tuberculosis.

Autor de un amplio catálogo abierto a todos los géneros, Schulhoff corona en enero de 1930 con la *Hot Sonate* para saxo alto y piano una producción de cámara que ya incluía dos páginas notables para instrumentos de viento: el *Concertino* para flauta (piccolo), viola y contrabajo (1925) y el *Divertimento* para oboe, clarinete y fagot (1927). Dividida en cuatro breves secciones, la *Hot Sonate* sugiere, desde su mismo título, la relación con el jazz. El propio Schulhoff al piano y Billy Barton, miembro del conjunto londinense Savoy Orpheans Band, estrenaron la obra en la emisora de radio de Berlín Funkstunde AG, el 10 de abril de 1930. El compositor inglés afincado en Nueva York Richard Rodney Bennett es el autor de la presente orquestación que, fechada en 2002-04, sustituye el piano por un conjunto instrumental constituido por vientos (flautas, oboes, clarinetes, fagotes, trompas, trompetas, trombones, tuba), percusión y contrabajo. Sus sonoridades ácidas, especialmente en los movimientos pares, subrayan el parentesco de la pieza con páginas coetáneas de Weill y Gershwin.

# La Valse

Maurice Ravel - Ziburu, 7 de marzo de 1875 – París, 28 de diciembre de 1937

1906tik, Ravelek Johann Straussi bals moduko omenaldi bat egitea zerabilen asmotan: “Ezagutzen duzu erritmo hori zenbat maite dudan eta, nire ustez, bizitzeko poza dantzaren bidez adierazten da”, idatzi zion musikagileak Jean Marmoldi urte horretako otsailaren 7an. 1914an, Viena deitutako poema sinfoniko bat ontzeari ekin zion, baina Lehen Mundu Gerraren hasierak sormena zapuztu zion. 1919ko Sergei Diaghilev mandatu bati esker, berriz, Ravelek “poema koreografiko” hori amaitu zuen 1919ko abendu eta 1920ko apiril artean, azkenean *La Valse* izena hartuta. Aldiz, ez zi-tuen enpresaburu errusiarraren aurreikuspenak bete: “Maisu-lana da, baina ez baleta; balet baten potreta da, balet baten margolana”, adierazi zuen, aldi berean partitura errefusatuz. *La Valse* –egilearen esanetan, “zurrubilo zoragarri eta zorigaitzoko hori”– 1920ko urriaren 23an aurkeztu zuten Vienan Ravelek eta Casella bi pianotarako bertsioan. Urte horretako abenduaren 12an, Camille Chevillardek eta Lamoureux Orkestak orkestrarako bertsioa estreinatu zuten. Estreinaldi koreografikoa 1929ko maiatzaren 23an egin zen Pariseko Operan, eta Ida Rubinsteinen Baletek eszenaratu zuten Gustave Cloëzen musika-zuzendaritzaz, Alexandre Benoisen dekoratuez eta Bronislava Nijinskaren koreografiaz.

Misia Serti eskainia, *La Valse* bat dator egileak idatzitako egitarau literario batekin: “Laino arreen artetik, balsa dantzatzen duten bikoteak bereiz ditzakegu tarteak. Lainoak pixkanaka barriatu dira, eta jiran dabilen jende-multzo batez jositako areto batez jabetzen gara. 1855eko inperioaren gortean gaudé”. Amaren heriotzaren eta gerrako hondamendien doluz jotako Ravelen begiratu desitxuratuaz, *La Valse* gizarte espontaneo baten erretratu nostalgikoa baino, gainbehera datorren erritmo baten apoteosi sorgindua da: apoteosi loriatsu batean baino, ezin bestean iraungi den garai baten hondamena janzen duten zorabioan eta eldarnioan, frenesi eta amesgaizto groteskoan desegiten den dantza makabro, morbido, sentsual eta deslotua.

Desde 1906 Ravel proyectaba rendir un homenaje en forma de vals a Johann Strauss: “Usted conoce mi inmensa simpatía por ese admirable ritmo y pienso que la alegría de vivir se expresa por medio de la danza”, escribe el compositor a Jean Marmold el 7 de febrero de ese año. En 1914 emprende la composición de un poema sinfónico titulado *Viena* pero el comienzo de la Primera Guerra Mundial paraliza su creatividad. Un encargo de Sergei Diaghilev en 1919 hace que Ravel concluya este “poema coreográfico”, finalmente titulado *La Valse*, entre diciembre de 1919 y abril de 1920. Mas las expectativas del empresario ruso no quedan satisfechas: “Es una obra maestra, pero no es un ballet; es el retrato de un ballet, la pintura de un ballet”, declara a la vez que rechaza la partitura. *La Valse* –ese “torbellino fantástico y fatal” en palabras de su autor– sería presentado el 23 de octubre de 1920 en Viena, en su versión para dos pianos, por Ravel y Casella. El 12 de diciembre de ese mismo año Camille Chevillard y la Orquesta Lamoureux estrenaban la versión orquestal. La première coreográfica, el 23 de mayo de 1929 en la Ópera de París, correspondería a los Ballets de Ida Rubinstein, con dirección musical de Gustave Cloëz, decorados de Alexandre Benois y coreografía de Bronislava Nijinska.

Dedicado a Misia Sert, *La Valse* responde a un programa literario escrito por su autor: “Unas nubes turbulentas dejan entrever a ratos parejas que bailan el vals. Las nubes se disipan poco a poco y se distingue una inmensa sala repleta de una masa de gente que gira. Estamos en la corte imperial de 1855”. Bajo la deformada lente raveliana, enlutada por la reciente muerte de su madre y los desastres de la guerra, *La valse* constituye, más que el nostálgico retrato de una sociedad desenfadada, la apoteosis fantasmal de un ritmo periclitado: una mórbida, sensual y dislocada danza macabra que se disuelve, no en una apoteosis gloriosa, sino en el vértigo y el delirio, el frenesí y la pesadilla grotesca que envuelven el derrumbe de una época irremediablemente extinta.

## Musika argudio La música como pretexto

“ Smetanaren musika txekiarra da; nirea, berriz, eslaviarra.

La música de Smetana es checa y la mía es eslava.”

### A. Dvorák

“ Glazunov paradoxa baten adierazgarria da: musikari errusiar jakintsuetako bat izanda ere, inoiz ez zuen kontserbatorioan ikasi.

Glazunov ofrece la paradoja de que, siendo uno de los músicos rusos más sabios, jamás estudió en el conservatorio.”

### A. Lischke

“ Sortzera dedikatzen denak ez du zertan kezkatu bizi den garaiaz.

Quien se dedica a crear no necesita preocuparse por el tiempo en el que vive.”

### E. Schulhoff

“ *La Valsen*, lanaren aparteko arrakastari hainbeste lagundu dion erromantizismo suhar bat ematen da aditzera, eta hertsatzen gaitu.

En *La Valse* nos solicita y nos comprime un romanticismo febril que ha contribuido no poco al extraordinario éxito de la obra.”

### Roland-Manuel

## Gure iradokizun diskografikoa Nuestra sugerencia discográfica

### A. Dvorák: Danzas Eslavas

Orquesta de Cleveland.  
Zuz./Dir.: George Szell.  
Sony, 1963-65.

### A. Glazunov: Concierto para saxofón

Theodore Kerkezos,  
saxofón.  
Orquesta Philharmonia.  
Zuz./Dir.: Martyn Brabbins.  
Naxos, 2002.

### E. Schulhoff: Hot Sonate

Štěpán Koutník,  
saxofón.  
Tomáš Višek,  
piano.  
Supraphon, 1994.

### M. Ravel: La Valse

Orquesta Filarmónica de Nueva York.  
Zuz./Dir.: Pierre Boulez.  
Sony, 1974.

## Andrey Boreyko zuzendaria director



Andrey Boreyko Euskadiko Orkestraren Zuzendari Printzipal Gonbidatua da 2009/2010 denboraldiaz geroztik. Düsseldorfer Symphoniker-en musika-zuzendari nagusia eta Stuttgart Radio Symphony Orchestra-ren (SWR) zuzendari gonbidatu printzipala da. Gainera, Belgikako Orkestra Nazionaleko zuzendari titular izango da 2012ko irailetik aurrera. Berner Symphonie-Orchester, Jenaer Philharmonie, Hamburger Symphoniker, Winnipeg Symphoniker Orchestra taldeen zuzendari titularra izan da eta Vancouver Symphony orkestraren zuzendari printzipal gonbidatua. Halaber, Jenaer Philharmonie orkestrako ohorezko zuzendaria da. Andrey Boreyko nazioarte mailako orkestra gailenenak zuzendu ditu, horien artean Berliner Philharmoniker, Münchner Philharmoniker, Sächsische Staatskapelle Dresden, Gewandhausorchester Leipzig, Errusiako Nazionala, Royal Concertgebouw, Rotterdamgo Filarmonikoa, Orchestra Sinfonica Nazionale della RAI, Scala, Wiener Symphoniker, London Symphony Orchestra, The Philharmonia Orchestra, BBC, Radio France, New York Philharmonic eta Los Angelesko Filarmonikoa eta Boston, Chicago, Cleveland eta Philadelphiako orkestrak.

Andrey Boreyko es Director Principal Invitado de la Orquesta de Euskadi desde la temporada 2009/2010. Es además director musical de la Düsseldorfer Symphoniker y principal director invitado de la Stuttgart Radio Symphony Orchestra (SWR). Recientemente nombrado director titular de la Orquesta Nacional de Bélgica, desempeñará este cargo a partir de septiembre de 2012. Ha sido director titular de la Berner Symphonieorchester, Jenaer Philharmonie, de la que es director honorario, Hamburger Symphoniker y de la Winnipeg Symphony Orchestra, así como director principal invitado de la Vancouver Symphony. Andrey Boreyko ha dirigido la mayoría de las orquestas más importantes del panorama internacional, como la Berliner Philharmoniker, Münchner Philharmoniker, Sächsische Staatskapelle Dresden, Gewandhausorchester Leipzig, Nacional de Rusia, Royal Concertgebouw, Filarmónica de Rotterdam, Orchestra Sinfonica Nazionale della RAI, Scala, Wiener Symphoniker, London Symphony Orchestra, The Philharmonia Orchestra, BBC, Filarmónicas de Radio France, Nueva York y Los Angeles y las orquestas de Boston, Chicago, Cleveland y Philadelphia.

## Branford Marsalis

saxofoña  
saxofón



New Orleans-en 1960an bertako familia nabarmen batean jaioa, horien artean Ellis aita eta Wynton, Delfeayo eta Jason anaiaik, interes ugari izan ditu beti musikaren arloan, jazz, blues edo klasikoa besteren artean. Bere lehennarrakastak 80ko hamarkadan izan zituen, Art Blakey's Jazz Messengers eta Wyntoen boskotearekin; ondoren bere taldea eta Marsalis Music sortu zituen. Hiru Grammy-ren irabazole, Miles Davis, Dizzy Gillespie, Herbie Hancock edo Sonny Rollins-ekin aritu da. Azken urteotan, bakarlari gisa aritu da biziki New Yorkeko Orkestra Filarmonikoarekin, Andrey Boreyko zuzendurik, Chicago, Detroit edo Ipar Karolinako orkestrekin eta Boston Pops-ekin, besteak beste, Copland, Debussy, Glazunov, Ibert, Mahler, Milhaud, Rorem edo Vaughan Williamsen lanak interpretatzuz. Katrina-k eragindako hondamendiaren ondoren, Habitat Musicians Village delakoa sortu zuen Harry Connick, Jr.rekin.

Nacido en Nueva Orleans en 1960, pertenece a una de las familias más destacadas de la ciudad (que incluye a su padre, Ellis, y a sus hermanos Wynton, Delfeayo y Jason). Posee múltiples intereses musicales, desde el jazz, blues o funk al repertorio clásico. Logró sus primeros éxitos gracias a su trabajo con Art Blakey's Jazz Messengers y el quinteto de su hermano Wynton en los 80; después formó su propio grupo y el sello Marsalis Music. Ganador de tres premios Grammy, ha colaborado con Miles Davis, Dizzy Gillespie, Herbie Hancock o Sonny Rollins. En los últimos años ha desarrollado una intensa actividad como solista junto a la Filarmónica de Nueva York, bajo la dirección de Andrey Boreyko, las sinfónicas de Chicago, Detroit o Carolina del Norte y Boston Pops, interpretando obras de Copland, Debussy, Glazunov, Ibert, Mahler, Milhaud, Rorem o Vaughan Williams. Comprometido con la reconstrucción de su ciudad tras el Katrina, ha fundado con Harry Connick, Jr. el Habitat Musicians Village.

[www.branfordmarsalis.com](http://www.branfordmarsalis.com)

Gure Orkestraren jarduerari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero gurekin harremanetan jar zaitezke / Si desea conocer más detalles acerca de la programación de nuestra Orquesta contacte con nosotros.



943 01 32 32 | [www.euskadikoorkestra.es](http://www.euskadikoorkestra.es)

Miramon Pasealekua, 124 • 20014 Donostia-San Sebastián

## Hurrengo abonu kontzertua Próximo concierto de abono

Maiatzak  
**07**  
mayo

**Jean-Christophe  
Spinosi**

zuzendaria / director

**Johannes Moser**

biolontxeloa / violoncello

**V. Zubiaurre**

Ecos de Oiz

**R. Schumann**

Concierto para  
violoncello y orquesta

**L.Van Beethoven**

Sinfonía nº4

**Sarreren  
salmenta**  
**Venta de  
entradas**

**bbk**

*BBKren orotarako kuxazainetan*  
En los cajeros multiservicio de BBK

**944 310 310**

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**Palacio EUSKALDUNA Jauregia**

Taquilla / leihatila: Tel.: 902 54 05 39

Ordutegia / Horario: 17:00 - 20:00

Kontzerto egunetan, halaber, 12:00etatik 14:00etara.  
Los días de concierto, también de 12:00h a 14:00h.

| [www.euskadikoorkestra.es](http://www.euskadikoorkestra.es)

CONCIERTOS

TEATRO

SALA  
bbk®

SALA  
bbk®

SALA  
bbk®

MUSICA

CHARLAS

JORNADAS

SALA  
bbk®

SALA  
bbk®

CINE

MASTER  
CLASS

SALA  
bbk®

SALA  
**bbk®**

ENTRADAS A LA VENTA EN **SALA BBK** (Gran Vía, 19-21. Bilbao • 94 405 88 24) Y **CAJEROS MULTISERVICIO BBK**